



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 11

35. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa, Foru Komunitateko sinboloen eta, Foru Komunitatekoa ez bada ere, erabili nahi den beste edozein sinboloren erabileraren inguruan. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzako, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osorik bete dezan azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskola publikoaren garapena bultza dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, eskari osoari erantzunez. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan adingabeei egindako inkesta, beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruzkoa. Mozioa erretiratzea (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandako hilketei buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Nafarroako herri-tarren gehiengoak NATOr buruzko 1986ko martxoaren 12ko erreferendumean adierazitako borondatea. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu martxoaren 8an den Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premiatzen baitu, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara, genero-berdintasuneko balioetan oinarrituriko hezkuntza ematera. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu martxoaren 11, Eraso Terroristen Biktimak Gogoratzeko Europako Eguna gisa. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Miguel de Cervantesen urtea ospatzeko ekitaldiei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Ikea Cordovillan paratzeari buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberako uholdeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Institutuko Bidearen eta A-68aren arteko Tuterako lotuneari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarrote-zerrende buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, TRW enpresaren ordezkararen agerraldiaren ostean haren aurka izandako istiluei buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingeleseko Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturali kaltetuei laguntza ematera Hezkuntza Departamentuak bideratutako aurrekontuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari baimena eskatzea, Trabajos Catastrales SAren plantilla berregituratzeko, Tracasa Instrumental SL sozietatean sartu behar diren langileen subrogazioaren bitartez (21. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-keta bidez betetzeko (22. or.).
- Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea etetea (28. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko martxoaren 2an hartutako erabakiaren bidez, foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea Foru Lege proiektu honen izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez".

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez.**

**ZIOEN AZALPENA**

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeak 11. artikuluan arautu zituen elkarren bermerako sozietateen zerga onurak, martxoaren 11ko 1/1994 Legeak entitate mota horren funtsezko erregulazioa behin egin ondoren.

Zerga onuren araubideak sozietateen gaineko zerga eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga biltzen zituen. Ondoren, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak 11. artikuluan horren 1. idatz-zatiko a) letra indargabetu zuen, eta ondorioz gabe utzi zituen sozietateen gaineko zergan aipatzen diren zerga onurak.

Nabarmendu beharra dago elkarren bermerako sozietateak finantza entitateak direla, eta haien helburu nagusia dela enpresa txiki eta ertainei kreditua eskuratzen laguntzea eta finantzabiderako baldintzak hobetzea, abalak emanez banku eta aurrezki kutxen aurrean. Zehazki, berme faltagatik finantzabiderik lortzerik ez duten enpresei laguntzeko zeregin garrantzitsua betetzeaz gain, maileguetarako interes tasa eta itzulketarako epe hobeak lortzen dituzte, eta horrekin nabarmen jaisten dira enpresa txiki eta ertain horien finantzaketa kostuak. Horri dagokionez, gogoratu behar da Foru Komunitateko enpresa sarearen ehuneko laurogeita hamar inguru oso enpresa txikiek osatzen dutela. Eta gauza jakina da entitate horiek zailtasun handiak dituztela finantzabide egokiak lortzeko.

Enpresa horien finantzabidea erraztu eta kreditua eskuratzen laguntzeko, foru lege honen xedea da aldaketa garrantzitsuak egitea ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren zerga onuretan, elkarren bermerako sozietateetan nahiz haien bazkideengan eragina duten horietan.

Aldaketa horiek egiteko hainbat arrazoi daude. Lehenengo eta behin, beharrezkoa da lege araua Hitzarmen Ekonomikoaren harmonizazio irizpideetara egokitzea, eta kentzea beharkizun bat, alegia, zerga onura horiek aplikatzeko, elkarren bermerako sozietateak Foru Komunitateko sozietateen gaineko zergaren araudiaren menpe egon beharra. Bigarrenik, salbuespena bermeak edo abalak eratu edo kitatzeko agiriei dagokienez aplikatuko dela zehazten da. Hirugarrenik ezartzen denez, elkarren bermerako sozietatea eta sozietateko kide den enpresa, zeinaren alde ematen baita bermea, lotzen dituen harreman juridiko osoa hartzen du salbuespenak. Horrek berarekin dakar salbuespenak enpresa txikitako bazkideek beraiek (edo haiekin lotutako zenbait pertsonak), era ditzaketen bermeak ere hartzea elkarren bermerako sozietateak bere enpresei emandako bermeak berriz abalatzeko. Azkenik, hein batean parekatzen dira birfidantzamenduko sozietateen zerga onurak elkarren bermerako sozietateek dituztenekin, honetan oinarrituta: birfidantzamenduko sozietateak eratzen dira, hain zuzen ere, elkarren bermerakoek hartutako arriskuei behar adinako estaldura eta bermea eman beharrez, eta, horrela, elkarren bermerako sozietateeko bazkideentzat abalen kostua jaisten da.

Foru legeak artikulua bat eta azken xedapen bat ditu, eta ondorioak izanen ditu Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera sortzen diren zerga-egitateetan.

Nafarroako Parlamentuaren Testu Bateginaren 157. artikuluan ezarritakoaren babespean, haren edukiaren izaera eta soiltasuna eta Foru Legearen helburuak aintzat harturik, zuzenean tramitatu nahi da, eta Parlamentuaren Osoko Bilkuran irakurraldi bakarria egin.

**Artikulu bakarra.** Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legearen 11. artikulua aldaketa.

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legearen 11. artikulua eduki hau izanen du:

“11. artikulua. Elkarren bermerako sozietateei eta haien kideei ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan aplikatzen ahal zaizkien zerga onurak.

1. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, Foru Komunitateko Administrazioaren menpe dauden zerga egitatei dagokienez, Espainiako Bankuaren Erregistro Berezian inskribatuta dauden elkarren bermerako sozietateek eta beraien kideek zerga onura hauek izanen dituzte:

a) Sozietateak bere kapitala gutxitzeko egiten dituen eragiketarako salbuespena, bai eta horiek formalizatzeko beharrezkoak diren egintza eta agiri-erako.

b) Elkarren bermerako sozietatea eta bazkidea, zeinaren alde ematen baita berme bat, lotzen dituen harreman juridikorako salbuespena, bai eta berme hori gauzatu edo kitatzeko agiri-erako ere.

c) Elkarren bermerako sozietatearen alde, aurreko b) letran aipatzen den harreman juridikoa dela medio, emandako berme mota oro eratzeko eta kitatzeko salbuespena, bai eta eragiketa horiek gauzatzeko agiri-erako ere.

“Egintza juridiko dokumentatuen” kontzepturako salbuespenak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 22.2 artikuluan ezarritako karga baizik ez du hartuko. Testu bategin hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

2. Birfidantzamenduko sozietateek aurreko idatz-zatiko c) letran elkarren bermerako sozietateerako aurreikusitako zerga onura berberak izanen dituzte, martxoaren 11ko 1/1994 Legearen 11. artikuluari jarraikiz haien sozietate xedean sartutako jarduerari dagokienez.”

#### **Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta egun horretatik aurrerako zerga egitateetan izanen ditu ondorioak.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana María Beltrán Villalba andreak Foru Lege proposamena aurkeztu du, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori presako prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Osasunari buruzko Foru Legeak (10/1990 Foru Legea) eratzen duen lege-esparruak ahalbidetu du, zenbait hamarkadatan, herritarren eskarien

eta itxaropenen arabera eta osasun-laguntzaren arloko aurrerabideetatik heldu diren hobekuntzen arabera garatzea Nafarroako osasun-sistema. Beharbada, hori izan da Foruaren Hobekuntzatik heldu diren legeen artean ahalmen gehien eragin dituen esparru politiko, profesional eta soziale-tan; horren ondorioz, nafarrek nahiz Nafarroatik kanpokoek oso ongi baloratutako osasun-zerbitzua dauka Nafarroak.

Nabarmendu beharra dago Osasunari buruzko Foru Legeak titulu oso bat eskaini ziola –IX. titulu– ekimen pribatuarekiko lankidetzari. Legegile-ek ulertu zuten antolamendu-baliabide, giza baliabide eta baliabide materialen sorta baten modura hartu behar zela Nafarroako osasungintza, baina ez fundazio eta titulartasun publikokoena soilik, ezpada pertsonen osasun-beharrizanen mesedetan jarritako ekimen sozialena ere bai.

Herritarrek ongi ulertzen dute baliabide publikoen eta ekimen sozialekoen arteko lankidetzaren printzipio hori, zeinek osasun-laguntzarik onena bilatzen baitute, oztopo artifizialik jarri gabe, laguntza hori eman behar duena nor den. Halatan, azken urteotan, ehunka mila nafarrek baliatu dituzte itun bidez antolatutako laguntza-programak, eta ekimen sozialarekiko hainbat lankidetz-eredu eratu izan dira, kalitate-adierazleek erakusten dutenez gogobetetasun-kota handiagoak ekarri dituztenak. Legearen aitzinsolasean hauxe esaten da:

“Osasun zerbitzuaren eskaintzan lankidetz publiko-pribatuaren errealitatea jasoaz, Foru Legeak tarte bat utzi du administrazio kontzertua eta diru-laguntza arautzeko, horiek ekimen pribatu eta publikoaren arteko lankidetz gauzatzeko tresna direnez.”

Hortaz, Osasunari buruzko 1990eko Foru Legeak, IX. tituluan, bi esparru nagusi ezarri zituen ekimen pribatuarekin lankidetzan aritzeko: itunak eta diru-laguntzak. Araudiak, osasun arloko baliabideen titular ezberdinen arteko lankidetz-prin-

tzipioaz gain, funts publikoen kontrolerako araubide bat ere ezartzen du, lankidetzta-modalitateen kontrol ekonomiko eta administratiboaren eta kontu-ematearen printzipioaren bidezkoa.

Ohartarazi beharra dago Osasunari buruzko Foru Legea onetsi zen uanean oraindik ezarri gabe zegoela "iturri-banaketa" izeneko, zeina Toledoko 1995eko Itunetik heldu baitzen. Gogoratuko denez, osasungintza publikoa Gizarte Segurantzako kuoten kargura finantzatzen zen hasiera batean, eta Toledoko Itunetik aitzina Osasun Sistema Nazionalaren kontzeptuaren araberrako finantzatze-sistema bat ezarri zen, soil-soilik zergen bidezkoa, oinarri hertsiki solidariokoa eta Gizarte Segurantzaren sistematik instituzionalki banatua.

Halaber, legea onetsi zen garaian ezarrita zegoen sistemaren arabera, zenbait entitate edo enpresa beren langileentzako osasun-laguntzaz arduratu zitezkeen, "entitate laguntzailea" izeneko ereduaren bidez. Sistema horrek ahalbidetu egiten zuen berriazko zerbitzuak, enpresen antolamendu-ahalmenaren araberrakoak, ematea. Eta egia den arren horietako batzuek azkenean erabaki zutela beren langileak osasun-sistema publikora igarotzea –izan ere, izaera unibertsala dauka bokazioz–, egia da, halaber, lankidetzta-esparru hori, aintzat hartzekoa izatez gain, guztiz bat datorrela gure foru legedian jasotzen den lankidetzta-printzipioarekin ere.

Orain dela gutxi, arazo larri bat sortu da Nafarroako Unibertsitateko 7.000tik gora langileen osasun-laguntza dela-eta, zeinei, legearen interpretazio jakin baten eta kasuko kontusailetan egindako murrizketaren ondorioz, ukatu egin baitzaie beren enpresak emandako osasun arloko baliabideen kargura artatuak izaten jarraitu ahal izatea, azken hamarkada hauetan egin den bezala. Arazo horrek ez dio eragiten nafar horiendako osasun-laguntzaren jarraitutasunari soilik, baizik eta, funtsean, gure osasun-ereduaren garapenean ongi onartutako printzipioak ukitzen ditu; esate baterako, esparru publikoen eta pribatuen arteko lankidetzta, edo zentroa eta espezialista aukeratzeko askatasuna bera. Inolako zalantzagarritasunik gabekoa da Nafarroako Unibertsitateak bere langileei eta bere langile ez diren herritarrei osasun-laguntza emateko duen ahalmena, eta gure gizarte osoak handik onura ateratzen duela ere.

Osasungintzaren finantza-iturrien arteko banaketa argia ezarrita, azken urteotan entitate laguntzaile ereduak izandako bilakaera ikusita, eta osasungintzaren esparru publikoaren eta pribatuen arteko lankidetzta-printzipioak babesten saiatuta, komeni da Osasunari buruzko Foru Legea aldatzea, egun Nafarroan dauden laguntza-

baliabideen kantitate handiena edukitzeko aukerarako sakontzeko, eta aldi berean zuzenbidearen araberrakotasun esplizituago bat ahalbidetzeko osasun-laguntzako eredu jakin batzuei; hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitatea bezalako enpresa edo talde zehatz batzuk beren gain hartzeko prest dauden ereduai.

Aldaketa honek itun bereziaren kontzeptua jasotzen du, enpresa edo erakundeek beren langileei osasun-laguntza eman ahal izan diezaieten; osasun-politiken garapenean bete beharreko unibertsaltasun, ekitate eta erantzunkidetasun printzipioekin bateragarri izateko baldintzetan eman ere.

**Artikulu bakarra.** Artikulu berri bat gehitzen zaio Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeari.

"81 bis artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak, gobernu-erabaki bidez, osasun-laguntzaren ematerako itun bereziak egin ahal izanen ditu, zeinen xedea izanen baita laguntza-estaldura arrunta ezartzea, beren langileei Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan oinarritzko osasun-laguntzaren edo osasun-laguntza espezializatuari dagokionez ezarritako edukiaren gisa berekoa ematea erabakitzen duten enpresen edo erakunde kasuan, baldin eta horretarako beharrezkoak diren zuzeneko bitartekoak badituzte. Hori helburu, itun horiek ezarri ahal izanen dira, lege honetako arau orokorren eta berriaz aplikatzekoak liratekeen erregulaziopean, Gobernu eta eskaera egiten duten entitate laguntzaileak ados jarrita.

2. Osasun-laguntza emateko itun bereziak guxtienez ere bost urterako eginen dira, luzatzeko aukerarekin, halako moduan non bai osasun-laguntza ematen dutenek bai administrazioak behar bezala egin ahal izanen baitute osasun-baliabideen planifikazioa.

3. Osasun-laguntza emateko itun bereziek oreka ekonomikoaren printzipioa beteko dute, ekitaldi bakoitzeko per capita osasun-gastua eta modalitate horretako populazioa oinarri, horri atxikirik itunari lotzen zaion enpresak edo erakundeak emandako zerbitzuari dagokion kantitatea. Administrazioak sortzen diren osasun-gastuak konpentsatuko ditu, nahikotasun, osasun-sistemaren barruko ekitate eta gardentasun printzipioei jarraikiz. Erregelamendu bidez ezarriko da modalitate horren onuradunek nola justifikatu beharko duten jasotako funtsen aplikazioa.

4. Osasun-laguntza emateko itun bereziak osasun-sistemaren beste helburu batzuei buruzko akordio orokorretan txertatu ahal izanen dira, hala nola ikerkuntza edo itun bereziari atxiki gabeko pertsonentzako osasun-laguntza, itundutako jarduera-multzoaren oreka ekonomikoa bilatuz."

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa, Foru Komunitateko sinboloen eta, Foru Komunitatekoa ez bada ere, erabili nahi den beste edozein sinboloren erabileraren inguruan.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa, Foru Komunitateko sinboloen eta, Foru Komunitatekoa ez bada ere, erabili nahi den beste edozein sinboloren erabileraren inguruan.

**2.** Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**JABELDURAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, jabeldura hau aurkezten du:

Lau alderdiko foru gobernuak osatzen duten taldeek Parlamentuan adierazi dute indarreko legea aldatzea erabaki dutela, ikurrina Nafarroako erakundeetan esekitzea ahalbidetzeko.

Hori ikusita, Bilduk iragarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren bandera udaren aurretik esekiko dela Nafarroako eraikin publikoetan.

Bilduk hori iragarri ondoren eta Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dioten lau alderdiek Sinboloei buruzko Legea indargabetzea eta beste bat egitea eskatzen duen adierazpena onetsi ondoren, Nafarroako Gobernuak lehendakariari jabeldura aurkezten zaio, adieraz dezan zer jarra duen Foru Komunitateko sinboloen eta, Foru Komunitatekoa ez bada ere, bertan erabili nahi den beste edozein sinboloren erabilerari buruz.

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Eleduna: Javier Esparza Abaurrea



**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua.**

*IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Estatuko Gobernuak eta bereziki Nafarroako Gobernuak bultzatu duten eskola-antolamendua- ren ezaugarri bat izan da, batez ere azken hamar urteotan, ikastetxeak eta ikasleak zenbait ezaugarriren arabera sailkatzea: jatorria, sexua, erlijioa, familien maila sozioekonomikoa, etnia eta abar.

Hiriguneetan, zehazki, ikasle-kontzentrazioak sortu dira hainbat ikastetxetan, halako moduan non eskola-populazioa ikastetxeetan banatu den unibertsaltasun eta ekitate irizpideak aintzat hartu gabe: familien ingurune fisiko eta sozialetiko hurbiltasuna, sozializaziokoak, ingurunearekiko interakziokoak, elkarbizitzakoak, gizarte-kohesiokoak... Eskola-antolamendu hori gidatu duten irizpideak lotuago daude pertsona eta/edo talde sozial ba-

tzuen interesei; izan ere, pertsona horiek beren interesekin bat datorren hezkuntza-eredua garatu nahi dute zenbait ikastetxetan.

Testuinguru horretan, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organiko berriak ikastetxeen eta ikasleen sailkapenean jartzen du azpimarra, eta, halatan, ezikusia egiten dio hezkuntzaren izaera konpentsatzaile eta sozializatzaileari, eta apustu egiten du eskola-antolamendu segregatzaile eta merkantilista baten alde, hezkuntza-premiei eta ikasleen interesei arrotz zaizkien bestelako interesen mesedetan, haien sozializazioari eta ingurumen sozial eta naturaleko integrazioari dagokionez.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak eginiko eskolatzeko eta eskola-antolamenduko politikak hezkuntza-eskaintzaren eta eskolatzearen antolamendu zehatz bat ekarri dute, ez datorrena bat hezkuntza-sistema publiko batean sustatuko diren aukera-berdintasun, hezkuntza-kompentsazio, ikasleen sozializazio, bizikidetasun eta eskolaren eta ingurunearen arteko inkardinazioarekin.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoak babestu ditzan, guztiei hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du LOMCE indargabetu dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da osorik bete dezan azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.**

*MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita osorik bete dezan azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Transexualitatea izaera bat da, zeinetan pertsona baten sexua (berezko sentitzen duen sexua) ez datorren bat jaio zenean bere sexu-organoen arabera esleitu zitzaion sexuarekin. Gaur egun horri buruzko jakintza dezente aurreratu da, eta jakin badakigu hori ez dela ez gaixotasun bat ez asaldura bat; giza aniztasunaren beste aldaera bat baino ez da.

Chrysallis Elkarteak, adingabe transexualen familia, zortzi familiak sortu zuten 2015eko mar-

txoan, eta une honetan 24 familia dira bertako kide, horietako 8 nafarrak direla.

Parlamentu honetan egindako lan bileran beraien azaldu bezala, elkartearen helburuak honako hauek dira: alde batetik, adingabe transexualen familientzako arreta, laguntza, aholkularitza eta prestakuntza eta elkarren arteko laguntza-sare baten ezarpena; eta, beste aldetik, adingabe transexualen eskubideak eremu guztietan defendatzea; adingabe horiekin esku hartu behar duten profesionalak prestatzea eta haiei informazioa ematea; eta, halaber, transexualitatearen ikusarazpena bai hezkuntzaren eremuan bai osasun, kultura, gizarte, kirol, zuzenbide eta hedabideen eremuetan, horietan guztietan errealitate honen gaineko jakintza eta errespetua sustatuz.

Eduki badaukagu Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, eta egia da, hori onetsi zenean, lege aitzindaria izan zela. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra dago gaur egun oraindik ez dela garatu.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea osorik bete dezan eta, bereziki, adingabe transexualen familien sentsibilizazio-, arreta- eta lagun egite kanpainekin zerikusia duena eta hezkuntzaren arloko ekintzei lotutako guztia.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garayalde y Lazkano Sala

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskola publikoaren garapena bultzatzen dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, eskari osoari erantzunez.**

### *IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita eskola publikoaren garapena bultzatzen dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, eskari osoari erantzunez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Tuterako eta bertako eragin-eremuko aurrematrikulazio-prozesua dela eta, nolabaiteko ziurgabetasuna sortzen ari da ikaspostua eskatu duten ikasle zehatz batzuen eskolatzeko eskubideen inguruan.

Aurrematrikulazio-prozesuaren ondoren, normalean zona horretan eskaera berriak egoten dira, eta horien ondorioz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan gaur egun dauden eskola-unitate guztiak beharko dira hurrengo ikasturtean, eta beharbada unitateren bat gehiago ere.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du eskola publikoaren garapena bultzatzen dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, egungo aurrematrikulazio-prozesuan eskari osoari erantzunez, ikastetxe publikoetan unitaterik kendu gabe eta Tuterako eta haren eragin-eremuko ikastetxe publikoetan ikasle gehiago hartzeko ekintza zehatzak garatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Tuterako eta haren eragin-eremuko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu guztietan ikaspostu-erreserba bat ezar dezan, eskolatzeko eskaera berriak eta "bat-batean agertutako" ikasleak hartze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ikastetxe publikoetan eskolatzeko eskaera osoari erantzuteko behar beste hezkuntza-esparru publiko sor ditzan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan adingabeei egindako inkesta, beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruzkoa.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan adingabeei egin-

dako inkesta, beren identitateari eta hizkuntz lehenespenei buruzkoa. Mozioa 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandako hilketei buruzkoa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak konpromiso aktibo bat hartzen du bere gain, pertsonen eta kolektiboaren giza eskubideen aurkako edozein erasoren zigorgabetasuna errazten duen edozein politika-edo lege-eragozpen desagerrarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak aintzatesten du frankismoaren biktimei guztien izaera politiko-juridikoa, eta, beste indarkeria mota batzuen biktimei eta giza eskubideen aurkako erasoen beste biktimei talde batzuei emandako tratua eskaintzeaz gain, horiei aitortutako eskubide berberak aitortzen dizkie frankismoaren biktimei.

3. Nafarroako Parlamentuak exijitu egiten du osorik bete daitezkeen gizateriaren aurkako krimenen tratamenduari aplikatu beharreko nazioarteko

legedia, gorroto- eta xenofobia-delituak saihesteko Europako esparru-erabakiak, eta Espainiako Erresumak horri buruz sinatu dituen nazioarteko akordioak.

4. Nafarroako Parlamentuak agintari politiko eta judizial eskudunak premiatzen ditu berehala aplikatu ditzaten Pablo de Greiff Nazio Batuetako kontalariak bere txostenean biktimei justizia, egia eta ordaina emateari buruz egindako gomendioak, eta gertatuak berriro ez errepikatzeko bermeak indartu ditzaten.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromiso estua goa eskatzen die Europako eta nazioarteko agintariei, egoera horretan aldaketa eragiteko eta memoria historikoaren politikak europartzeko”

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Nafarroako herritarren gehiengoak NATOri buruzko 1986ko martxoaren 12ko erreferendumean adierazitako borondatea.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako herritarren gehiengoak 1986ko martxoaren 12ko erreferendumean adierazitako boron-

datea eta NATOri emandako ukoa berresten dituela. Halaber, berretsi egiten du Parlamentu honek hainbat alditan hartu duen erabakia, Errege Bardeako tiro poligonoa ken dadin eskatzekoa.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu martxoaren 8an den Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzearekin.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du martxoaren 8an den Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak herritarrak gonbidatzen ditu gure gizartean berdintasun handiagoa aldarrikatzeko asmoz gure Komunitateko lurralde osoan deitu diren elkarretaratze edo manifestaldietan parte hartzera.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du mugimendu feminista babesten duela, haren eskaerei eta borrokei dagokienez.

4. Nafarroako Parlamentuak gizartea gonbidatzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde toki-mailatik lan egiten jarraitzera.

5. Nafarroako Parlamentuak gure politika publiko guztietan berdintasun-printzipioa txertatua egon dadin bermatzera premiatzen du.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentu honek berdintasuneranzko aurrerapausoak emateari buruz onetsi dituen mozioak gauzatu ditzan.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premiatzen baitu, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzearen karietara, genero-berdintasuneko balioetan oinarrituriko hezkuntza ematera.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak botere publikoak premiatzen ditu:

1. Familiaren eta erakundeen barruan genero-berdintasun, elkartasun eta bestearenganako errespetuaren balioetan heztearen garrantzia nabarmendu dezaten.

2. Konpromisoa har dezaten Nafarroako II. Berdintasun Plana prestatzeko eta ezartzeko, hori erreferentzia baita berdintasun-politikak ezarri, garatu eta betetzeko orduan.

3. Lanean zein familian gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna ahalbidetzen duten politikak susta ditzaten.

4. Nafarroako Gobernuak neurri argiak, urgen-teak eta zehatzak ezarriko ditu soldaten arteko arraila murrizteko.

5. Parlamentuak babestu egingen du berdintasuna lortzeari begira emakumeek bultzatzen duten elkarte-mugimendua.

6. Parlamentuak gizartea gonbidatu behar du berdintasunaren alde lan egiten jarraitzera eremu guztietan: herri-mailan, administrazioan, enprestan, elkarteetan...”

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu martxoaren 11, Eraso Terroristen Biktimak Gogoratzeko Europako Egun gisa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere egiten du martxoaren 11, Eraso Terroristen Biktimak Gogoratzeko Europako Egun gisa.

2. Egun horretan bere fatxada kolore gorritz argizatuz ohoratuko du haien memoria.

3. Elkartasuna adierazten die terrorismo guztien biktimei.

4. Terrorismo mota guztiak gaitzesteko konpromiso irmoa hartzen du.

5. Egiaren, justiziaren eta terrorismoaren biktime guztiei ordaina ematearen bilaketan beharrezkoak diren urrats guztiak egitea defendatzen du”

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ahozko honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran erantzun dakion.

Zein betetze-egoeratan dago erabaki bat, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2015eko abenduaren 10eko bileran onetsitakoa eta 2015eko abenduaren 17ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena txosten bat presta zezan “Tasa arrosa” deiturikoa egoteari, haren norainokoari eta emakumezko kontsumitzaileen eskubideetan duen eraginari buruzkoa?

Iruñean, 2016ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Miguel de Cervantesen urtea ospatzeko ekitaldiei buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Miguel de Cervantesen urtea ospatzeko ekitaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak ahoz erantzun diezaion Osoko Bilkuran:

Oroitzapenezko zein ekitaldi garatuko du Nafarroako Gobernuak Miguel de Cervantesen Urtea ospatzeko, hil zeneko laugarren mendeurrena betetzen den honetan? Zein argitalpen eta jarduketak gauzatuko ditu?

Iruñean, 2016ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

## **Galdera, Ikea Cordovillan paratzeari buruzkoa.**

*MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, Ikea Cordovillan paratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Orain dela gutxi jakinarazi da Ikeari agian interesatzen zaiola bere garaian Superser enpresak Cordovillan okupatu zuen orubearen ingurua, bertan bere altzari-dendetako bat instalatzeko. Horrenbestez, zera jakin nahi dugu:

1. Aurreikuspenen arabera, zenbat langile berri lirateke enpresa horrek Cordovillan modu egonkorrean kontratatzeak, eta zein lanaldi izanen lukete: partziala ala osoa?

2. Non ordainduko litzateke enpresa horren Cordovillako jardueren BEZa, eta non gainerako zergak?

3. Zein izanen lirateke instalazioak lagatzeko baldintzak?

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez



## **Galdera, Nafarroako Erriberako uholdeei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberako uholdeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Berriro ere, Ebro ibaiak uholdeak eragin ditu Nafarroako Erriberan. Horien ondorioz, N-113 errepide nazionala itxi da Castejongo udal der-

mioan. Kasu honetan, badirudi hori gertatu dela Cadreitako udal dermiotik gertu lubeta apurtu izateagatik.

Halaber, nolabaiteko aurrealera egon da zenbait herritan, Ebro ibaiaren ibaiadarren balizko gainezkatze-arriskuengatik.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein harreman izan ditu Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin (CHE), uholdeak eta haien ondorioak gutxitzea ahalbidetzen duten neurriak hartzeko?

– Haren ustez, egokia al da Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguen eta babesen egungo egoera?

– Nafarroako Gobernuak Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak garbitzearen alde dago? Premiatu al da CHE, hori egin dezan?

– Zein neurri hartu nahi du Gobernuak Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilgu eta babesen mantentze-egoera ona bermatzeko, zuzenean edo Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin batera?

Corellan, 2016ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Institutuko Bidearen eta A-68aren arteko Tuterako lotuneari buruzkoa.**

*LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Institutuko Bidearen eta A-68aren arteko Tuterako lotuneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako kontseilariak UPNko parlamentari Mari Carmen Segurari 2016ko urtarrilaren 21eko Osoko Bilkuran "Institutuko Bidea" deritzonari buruz emandako erantzunaren ondoren, komunikabideek informazio batzuk eta Tuterako Udaleko talde politikoek iritzi batzuk agertu dituzte bide horren eta A-68

autobiaren arteko loturaren balizko itxierari dago-kionez.

Hori dela eta, honakoa galdetzen dugu:

– Zer irtenbide darabil gogoan Nafarroako Gobernuak lotura horretan dagoen segurtasun-arazoaren aurrean, eta horietatik zein jo du irtenbidetzat?

– Noiz eta nola eman zitzaien Tuterako Udalari hautatutako irtenbidearen berri, eta zein iritzi agertu du horrek?

Tuteran, 2016ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

---

## **Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, 2016ko urtarrilaren 28an egindako idatzizko galderari (9-16-PES-00011) erantzun ez zaiola ikusita, honako galdera hauek aurkezten ditu, urgentziaz erantzun dakizkion:

**1.** Zer itxarote-zerrenda egon da 2015eko uztailan, abuztuan, irailean, urrian, azaroan eta abenduan Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografia eta erresonantzia bidezko proba diagnostikoetan?

**2.** Zein da, 2016ko urtarrilean eta otsailean, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografia eta erresonantzia bidezko proba diagnostikoetarako itxarote-zerrenda?

Corellan, 2016ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, TRW enpresaren ordezkariaren agerraldiaren ostean haren aurka izandako istiluei buruzkoa.**

*SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, TRW enpresaren ordezkariaren agerraldiaren ostean haren aurka izandako istiluei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldekoko eta Nafarroako Gorteetako kide Sergio

Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatzizko honako galdera hau aurkezten dio Beaumont kontseilariari, erantzun diezaien:

– Foruzaingoak ikerketarik abiarazi al du, TRW enpresaren Nafarroako lantegiari eragiten dion enplegu-erregulazioko espedientearen Parlamentuan azaltzeko agertu ondoren TRW enpresaren ordezkariaren aurka egon ziren liskar bortitzei buruz?

– Foruzaingoaren ikerketa horretan ikertzen al da Adolfo Araiz parlamentariak istilu horietan parte hartu edo lagundu zuen?

– Aurreko erantzunak baieztokoak badira, presatutako txostenak bidaltzeko eskatzen du.

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

## **Galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldekoko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Lizarrako Remontival ikastetxe publikoaren kasu zehatzean hiru ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingelesez Ikasteko Programan.

Salbuespen gisa eta aurreko ikasturte batzuetan gertatu ez bezala, ikastetxe publikoak eskaerak baremoaren arabera balioztatu behar

izan ditu, matrikulazio-eskaria egin den eskaintza baino handiagoa izateagatik.

Hezkuntza Departamentuak Ingelesezi Ikasteko Programako bi unitate esleitu dizkio ikastetxeari. Hori dela eta, egoera eta ikastetxeko ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta, egokitzat jotzen da eskaintza unitate bat gehiagorekin handitzea.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Galdera, Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntza ematera Hezkuntza Departamentuak bideratutako aurrekontuari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntza ematera Hezkuntza Departamentuak bideratutako aurrekontuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zenbateko aurrekontua erabiltzen du Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntzeko, eta zein jarduera eta dotaziotan erabiltzen du?

Corellan, 2016ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari baimena eskatzea, Trabajos Catastrales Saren plantilla berregituratzeko, Tracasa Instrumental SL sozietatean sartu behar diren langileen subrogazioaren bitartez.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren kontseilari delegatu Mikel Aranburu Urtasun jaunak eskari bat aurkeztu du, zeinaren bidez adierazi baitu Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren borondatea dela, Trabajos Catastrales, S.A.ren Administrazio Kontseiluak 2016ko otsailaren 19an hartutako erabakiaren ondoren, Trabajos Catastrales, S.A.ren plantilla berregituratzeko prozedura abiaraztea, Tracasa Instrumental, S.L. sozietatean sartu behar diren langileen subrogazioaren bitartez.

Kontuan hartuta Lehendakartzaren ebazpena, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketak baimentzeko jarraitu beharreko prozedura (3. NPAO, 2014-01-09koa), honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea eskari hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin (9-16/CDP-00002).

2. Ekimena Foru Araubideko Batzordeari helaraztea, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMPren Administrazio Kontseiluaren erabakia**

Mikel Aranburu Urtasunek –adinduna–, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren izenean, eta haren ordezkari gisa –ondorio haue-tarako helbidea: Sarasate pasealekua, 38, 2. eskuina, Iruña, Nafarroa; IFK: B/71018360–, eta kontseilari delegatua den aldetik, jasota ageri denez Iruñeko notario Rafael Unceta Morales jaunaren aitzinean 2015eko irailaren 3an formalizatu-tako eskritura publikoan –haren protokoloko 1297 zenbakia duena–, AZALTZEN DU:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren borondatea dela, Trabajos Catastrales, S.A.ren Administrazio Kontseiluak 2016ko otsailaren 19an egindako bileran hartutako erabakiaren ondoren, hasiera ematea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12. artikuluan jasotako prozedurari, Nafarroako Parla-mentuak aurrez baimena ematekoa plantilla berregituratzeko plan bat egiteko, sozietate publi-ko bateko langileen ehuneko hamarri baino gehia-gori eragiten diena; kasu honetan, Trabajos Catastrales, S.A.koei.

Zehazki, Trabajos Catastrales, S.A.ren zenbait baliabide material eta giza baliabide Tracasa Ins-trumental, S.L.ri esleitu nahi zaizkio; izan ere, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k Tracasa Instrumental, S.L. sortu zuen, Nafarroako Gobernuaren entitate instrumentala den aldetik bete ditzan hark egoki irizitako aginduak, gizarte-ari eta herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dut:

1. Nafarroako Parlamentuaren baimena, Traba-jos Catastrales, S.A.ren plantilla berregituratzeko, Tracasa Instrumental, S.L. sozietatean sartu behar

diren langileen subrogazioaren bitartez. Subrogazio horrek ekarriko du Trabajos Catastrales, S.A. ren ukitutako langile guztiek –362tik 263, hasiera batean– oraingo beren lan baldintzak mantentzea.

2. Nafarroako Gobernuako Lehendakartzari igortzea lehendabiziko akordioan aipatutako eskaera, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.” izeneko sozietatea sortzeari buruzko

ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.2 artikulua aplikatuz, artikulua horri abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Mikel Aranburu Urtasun, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren kontseilari delegatua

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko.**

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, 2015eko martxoaren 4an, honako ebazpen hau eman zuen:

Ikusirik Nafarroako Kontuen Ganberaren idazkari nagusiaren eta administratzailearen txostenak, auditore izateko lanpostu huts bat betetzeari buruzkoak, lanpostu hori aurreikusirik baitago Nafarroako Kontuen Ganberaren 2016rako plantilla organikoan, eta Zerbitzu Juridikoaren eta Esku-hartze Zerbitzuaren aldeko txostenak baititu. Horri buruz behar bezalako informazioa eman zaio erakundeko langileen batzordeari. Horrenbestez, lehendakartzita honek, bere ahalmenak eta bere eskumenak erabiliz,

**EBATZI DU:**

**Lehenbizikoa.** Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdiaren oinarriak jarraian eransten dira.

**Bigarrena.** Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 4an.

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko**

Hona hemen deialdi honetako arauak:

### **1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzea. Bere eginkizunak beteko ditu erakundeak Iruñeko Ansoleaga kaleko 10ean duen egoitzan.

1.2. Lekualdatze-lehiaketa honetan honako hauek izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta lekualdatze lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuko lanpostuak betetzeko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2007ko otsailaren 26an onetsia (21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 2007ko martxoaren 7koa).

Horien osagarri aplikatuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdiaren bidez izendatutako pertsonak Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditore lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Eginkizunak Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 19ko 19/1984 Foru Legearen 16. artikuluan eta Erakundearen antolaketari buruzko Erregelamenduaren 3. artikuluan zehazten dira

(19. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofiziala, 2007ko martxoaren 2koa); besteak beste honako hauek: Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kontuak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatzea, fiskalizazio zirriborroak eta behin-behineko txostenak prestatzea eta Ganberako lehendakariari igortzea, baita fiskalizazio eginkizunetan arituz lortzen dituen emaitzak ere, horien euskarriko agiriekin batera; auditoretzako arauak, irizpideak eta programak prestatzea, lanen homogeneizazio handiagoa lortzeko, baita Kontuen Ganberako lehendakariak agintzen ahal dion edozein ere, esleituta dituen eginkizunak bete-teari dagokionez.

1.4. Lanpostua A mailakoa da eta horri dagokion ordainsariak izanen ditu, eta Nafarroako Kontuen Ganberaren indarreko plantilla organikoan 2016rako zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Deialdiko lanpostu kopuruari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio, alegia, epaimahaiak lehiakideen zerrenda (lortutako puntuazioaren arabera) deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

**2. oinarria.** Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) A mailako funtzionarioa izatea.

b) Titulu hauetakoren bat izatea: merkataritza irakaslea, zuzenbideko lizentzia, ekonomia edo enpresa zientzietako lizentzia.

c) Auditore lanpostu baterako izendatua izatea, horren eginkizun nagusien artean deialdi honen 3. ataleko 1. oinarrian aipatzen direnak baitaude.

Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betiko esleituko zaie.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira.

Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozedurak irau bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozedura izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

**3. oinarria.** Eskabideak eta horiek aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Eskabideak interesdunen eskura egonen dira Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web orrian ere ([www.camaradecomptos.es](http://www.camaradecomptos.es)), langileak hartzeko deialdien atalean.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Deialdiaren 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta erakunde horren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Ansoleaga kalea, 10), egun eta ordu baliadunetan (goizeko 8:30etik 14:30era bitarte, astelehenetik ostiralera), hamabost egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren bideak erabiliz. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Desgaitasun aitortua duten lehiatzaileek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskaeran adieraztea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasunen bat dutela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

**4. oinarria.** Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Kontuen Ganberako iragarki oholean eta [www.camaracomptos.es](http://www.camaracomptos.es) web orrian argitaratuko da.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

4.4. Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du.

Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Ganberako iragarki oholean eta [www.camaracomptos.es](http://www.camaracomptos.es) web orrian argitaratuko da.

Izangai bakarra ere onartzen ez bada, lehiaketa eman gabe utziko da.

**5. oinarria.** Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketaren epaimahaiko kideak:

Epaimahaiko burua:

– Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusia.

Mahaiburuaren ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako legegaria.

Mahaikideak:

– Jesús Muruzabal Lerga jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

Ordezkoa: Ignacio Cabeza del Salvador jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

– María Asunción Olaechea Estanga andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea, langileen batzordearen ordezkari, epaimahaiko idazkari arituko dena.

Ordezkoa: Karen Moreno Orduña andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea, langileen batzordearen ordezkari.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost eguneko epearen barruan eratu beharko da.

Epaimahaiaren eraketak eta jarduerak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren ebazpenak gehiengoz emanen dira eta epaimahaiburuak kalitatezko botoa erabiltzen ahalko du.

5.3. Deialdiaren oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoak ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

**6. oinarria.** Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta frogatutako merezimenduak deialdi honen I. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak, eta gehienez ere 45 puntu izanen dira.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak, lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.4. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa Nafarroako Kon-



tuen Ganberako web orrian, eta bost eguneko epea ezarriko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alega dezaten.

6.5. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta epaimahaiak haiek ebatzita, Ganberako iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da berriz ere, izangaiek merezimenduen kalifikazio fasean lortutako behin betiko puntuazioekin.

Iragarki horretan, proba praktikoa egiteko tokia, eguna eta ordua emanen dira aditzera.

**7. oinarria.** Proba praktikoa, lanpostuaren edukari eta eginkizunei buruzkoa eta Nafarroako Kontuen Ganberaren gaineko ezagutzari buruzkoa.

7.1. Bi ariketa egin beharko dira idatziz, gehienez ere lau orduetan; gehieneko puntuazioa 20 puntu izanen dira.

Lehenengo ariketa 5 puntu arte baloratuko da. Bost galderari erantzun beharko diete, Nafarroako Kontuen Ganberari eta horrek egiten duen lanari buruzkoak. Zehazki, galderak honako hauei buruzkoak izanen dira: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketa Erregelamendua, eta Nafarroako Kontuen Ganberaren Ekonomia eta Finantzen Erregelamendua.

Bigarren ariketa 15 puntu arte baloratuko da. Deialdi honen 3. ataleko 1. oinarrian deskribatutako lanpostuaren edukari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa egin beharko da, Kontuen Ganberako auditoreek normalean burutu beharreko lanen gainean (plangintza, zuzendaritza, Nafarroako entitate publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio lanak eta txostenak egitea eta idaztea).

7.2. Plika itxien sistema erabiliko da ariketa hauek zuzentzeko. Horretarako, izangaiek, proba bukatutakoan, folioak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izangaiek izendeiturak gutun-azal txiki batean jarriko dituzte, eta gutun-azal hori bestearekin batera aurkeztuko da. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Proba bukatzean, bi gutun-azalaz epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, egilea zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna proba egiten ari den bitartean jakinaraziko zaie izangaiei.

Proba hori baztergarria izanen da. Bi ariketak baturik gutxienez ere 10 puntu behar dira gainditzeko. Lortutako puntuazioa Nafarroako Kontuen Ganberaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da.

7.3. Proba egiteko orduan, halaxe eskatzen duten minusbaliatuek denbora eta baliabide alde-tik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eska-bidean azaltzen dutenaren arabera.

**8. oinarria.** Izangaiei zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

8.1. Epaimahaiak lehiatzaile guztien puntuazioa prestatu eta izangaiei zerrenda igorriko dio, lortutako puntuazioaren arabera, Kontuen Ganberako lehendakariari eta hark deialdiaren hasieran zen lanpostu kopurua handitzeko ebazpena eman lezake, hori egitea egokia balitz. Halaber, lehendakariak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

8.2. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen aintzinasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrenaren alde egingen da.

8.3. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuena lortzen duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

**9. oinarria.** Lanpostuaren jabetza hartzea.

9.1. Izendatzen den izangaiak izendapen erabakia jakinarazi ondoko hamar egun naturaleko epean hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

9.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

**10. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

10.1. Izangaiek aurkezten dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik, betiere erreklamazio edo errekurtsorik jar-tzen ez bada. Agiriak berreskuratze eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da. Epe hori izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabete-ra hasiko da.

10.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izan-

gaiak agiriak berreskuratzeari uko egin diola uler-tuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratu ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

#### **11. oinarria.** Errekurtsuak.

Deialdiaren, bere oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsua, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahalko da, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

### **I. ERANSKINA**

#### **Merezimenduak baloratzeko baremoa**

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak. Gehienez ere 25 puntu.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiteko, puntu bat ematen da deialdia argitaratzen den egunean aitortutako antzintasun urte bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa ematen zaie izangaiei.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

3. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa. Gehienez ere 15 puntu.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartzea: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 7 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, ikastorduen zatikiak proportzionalki banatuko dira.

2. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa ematen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa ematen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barnean antolatuak sartuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpoak, ez dira atal honetan baloratuko.

2) Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo saritutako zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea, baita itzulpenak argitaratzea ere:

4 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz ea lana edo jardura bakarka edo taldean eginga den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, estatu edo nazioarteko maila duen.

3) Sektore publikoaren esparruan prestakuntza jardueretan irakasle gisa parte hartzea eta/edo haiek antolatzea: 4 puntu gehienez ere; epaimahaiak baloratu beharrekoak, haien iraupenaren arabera.

Oharrak b) atal osorako:

1. Atal horretan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Honako b) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntu izanen da.

c) Beste merezimendu batzuk, epaimahaiak baloratu beharrekoak. Gehienez ere 5 puntu.

1. Deialdian eskatutakoez bestelako goi mailako titulazioak, gehienez ere puntu bat.

2. Erdi mailako titulazioak, deialdian eskatu ez direnak: gehienez ere 0,50 puntu.

3. Doktore maila, deialdian eskatutako titulazioari buruz: gehienez ere puntu bat.

4. Euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea:

Euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk jakitateagatik, 0,5 puntu emanen dira oinarritzko mailagatik eta puntu bat goiko mailagatik.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean hainbat tituluren eta egiaztagiriaren artean ezarritako baliozkotzeak. 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ebazpen hori, irailaren 27an.

Oharrak c) atalerako:

1. Hizkuntzen ezagutza Hizkuntza Eskola Ofizial baten ziurtagiriaren bidez frogatu beharko da, edo erakunde publiko kreditatu batek emandako ziurtagiriaren bidez. Hartan lortutako titulazioa edo maila adieraziko da.

2. Titulu ofizialik ahalbidetu ez arren hizkuntza ikasmaila osoak edo unibertsitate ikasketak gainditu badira, epaimahaiak horiei puntuazioa ematea erabaki dezake, dagokion tituluaren proportzioan.

## II. ERANSKINA Eskabide eredua

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_  
adina: \_\_\_\_\_, NAN zenbakia: \_\_\_\_\_,  
helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): \_\_\_\_\_,  
telefono zenbakia: \_\_\_\_\_,  
e-maila: \_\_\_\_\_ adreitasunez,

**AZALTZEN DU:**

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2016ko martxoaren 4an emandako ebazpenaren berri izan du; horren bidez auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko dei egiten da, eta hartan parte hartu nahi du.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditu, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horrenbestez,

**ESKATZEN DU:**

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen dituen merezimenduen frogagiriak gaineratu ditu.

Iruñean, 2016ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (e)an

Sinadura

## **Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea.**

### *HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA ETETEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren 2016ko martxoaren 10eko erabakiaren bidez, onetsi da Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek txosten bat egitea Kontuen Ganberako lehendakari izateko hautagai izatearen eta azken bi urteotan bertako auditore izatearen arteko balizko bateraezintasunari buruz. Hori guztia lotuta dago Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 25.5 artikuluan ezarritakolari. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak eskatu dute.

Aurrekoaren ondorioz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-tal-

deek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak eskatzen dute Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari izateko hautagaitzak aurkezteko epea etetea, txosten hori egin arte.

Parlamentuko Erregelamenduaren 37. Artikuluari jarraituz, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari izateko hautagaitzak aurkezteko epea etetea, Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek eskatu den txostena egin arte.

**2.** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza